

TXAPELDUNEN LIGA. Partidua ez zen oso ona izan, baina emozioa azkeneraino izan zuen

Penaltiekin hasi eta bukatu

Bayernek, luzapenaren ondoren, zazpigarren penalti txandan irabazi zuen Kopa



CARDENAS / EFE

Mehmet Scholl falta bat jaurtitzen Valentziaren hesiaren gainetik; azkenean, ordea, penaltiek erabaki zuten finala.

Jon Ordoñez | **DONOSTIA**

Penaltien zazpigarren txandak erabaki behar izan zuen atzo Bayern eta Valentziaren arteko Txapelunen Ligako finala. Luzapenean ere bi taldeak ez ziren aurkariari bigarren gola sartzeko gai izan, eta azkenean Kahnek Pellegrinori geratutako penalti batek eman zion Kopa Bayerni. Bizi izan zen partidua orekatuaren seinale da emaitza. Espero bezala partidua orekatua izan zen, ez ordea oso taktikoa. Bi taldeak nahiko urduri ateratu ziren Giuseppe Meazza futbol zelaira, eta horrek nahasketa ugari sortu zituen area barruan. Horietako batean, hirugarren minutuan, Dick Jol epaileak espainiarren aldeko penaltia adierazi zuen. Mendietak sartu zuen baloia Kahnen atean. Bost minutu geroago, ordea, Schollek ezin izan zuen Bayernen aldeko penaltia sartu. Gaizki bota zuen, eta Cañizaresek geratu egin zuen.

Lehen minutuetatik finala alde zeukala ikusita, Valentziak erasoari uko egin zion; ez zitzaizkion gauzak nahi bezala

BAYERN

1

Bayern: Kahn; Kuffour, Andersson, Linke; Sagnol (Jancker, 46. m.), Hargreaves, Effenberg, Lizarazu; Scholl (Paulo Sergio, 107. m.), Elber (Zickler, 99. m.) eta Salihamidzic.

Valentzia: Cañizares; Angloma, Ayala (Djukic, 88. m.), Pellegrino, Carboni; Baraja, Mendieta, Kily Gonzalez, Aimar (Albelda, 46. m.), Sanchez (Zahovic, 65. m.) eta Carew.

Golak: 0-1: Mendietak penaltiz (3. m.). 1-1: Effenbergekin penaltiz (50. m.).

Gol aukerak: Schollek penaltia hutsegin zuen (8. m.)

Penaltiak: Zazpi penaltitik Bayernek lau sartu zituen; Valentziak hiru. Huts egin dutenak: Paulo Sergio, Zahovic, Andersson, Carboni eta Pellegrinok azkena.

Epailea: Dick Jol. Txartel horiak Bayerneko Andersson eta Valentziako Carboni eta Kily Gonzalez.

atera behintzat. Bigarren zatian atera ariaren eta luzapenean nahiko ondo aritu bazen ere, Carew ez zen batere fin ibili, eta Sanchezek aukera gutxi izan zituen. Cuperrek Aimar zelairatu zuen zelaia erdian, erdilaria aurreko lerroarekin errazago elkar zedin. Ez zuen, ordea, helburu hori lortu. Gainera, Mendieta makal aritu zen partidua guztian zehar, eta batez ere lehen zatian Valentziaren eraso hutsa izan zen.

Gainera, espainiarrek bazuten nahikoa lan Bayernen erasoak saihesteko. Salihamidzic ezker hegalean zelairatuz, Lizarazurekin, biek abiadura izuga-

VALENTZIA

1

GILTZAK

BAYERNEN EZKER HEGALA. Partiduaren lehen zatian Lizarazuk eta Salihamidzic bakoitza ondo baino hobeto igo arren, aurrelariak ez ziren aukerak gauzatzeko gai izan.

MENDIETA, PATTAL. Jokalari bizkaitarrak ez zuen atzokian Valentziak berak erakusten ohi duen maila eman.

PENALTIAK. Onerako eta txarrerako, penaltiek beti erabakitzen dute, eta hor ez aitzaki ez eta justiziarik ere.

ria eman zioten Bayerni, eta Angloma eta Ayala ezinean aritu ziren bi jokalariek geratu nahian. Hala ere, Elber, Effenberg eta Schollek ez zuten asmatu baloia sarera sartzerakoan. Bigarren zatia hasi eta berehala, ordea, Bayernen aldeko bigarren penaltia adierazi zuen, eta oraingoan Effenbergekin ez zuen hutsik egin. Bigarren zatian alemaniarren kapitainak zelaia sendotu zuen, eta Elber bilatzen aritu zen.

Baina Valentziak ez zuen amore eman, eta Bayernen golaren aurretik Cuperrek egindako aldaketa bati esker —Albelda Aimarreatatik— pibote biokitzarekin hobeto iritsi zen goara, eta gola sartzeko aukerak ere izan zituen, batez ere, luzapenean Zahovicekin izan zituen aukera. Tarte horretan ere Lizarazu jaurtiketa pare bat egiten saiatu zen, baina huts egin zuen. Luzapenean sartuta zeudela, Hitzfeldek Zickler zelairatu zuen taldeari abiadura gehiago ematearren, baina bi taldeek gogoan zuten Alavesi gertatutakoa, eta hutsik egin nahi ez izateak penaltietara eraman zituen.

TXIRRINDULARITZA

Svoradak irabazi du Midi Libreko bigarren etapa eta bera da lider berria

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Lampre taldeko Jan Svorada txekiarrek irabazi zuen esprintean Midi Libreko bigarren etapa, eta bera da itzuli horretako lider berria. Svoradak aurrea hartu zien azken metroetan Nicola Lodari (Fassa Bortolo), Alexandre Vinokourov (Telekom) eta Igor Flores (Euskaltel), eta urteek aurrera egin arren, esprintean oraindik ere ederki moldatzen dela erakutsi zuen Lampreko ziklistak —bigarrena izan zen asteartean—.

Saint Cyprien eta Pezenas artean jokatu zen atzoko etapa. Txirrindulariek 197 kilometro osatu behar izan zituzten, eta euria izan zen eguneko protagonista. Azken kilometroetan ekaitza izan zuten txirrindulariek eta asko eta asko larri ibili ziren denborarik ez galtzeko. Helmugara, ordea, eguzki printzekin heldu zen tropela.

Etapa lasaia izan zen, ihesaldi ahalegin gutxirekin. Nicki Sorensenek eta Euskaltel-Euskadiko Unai Etxeberriak egin zuten ahalegin gogorrena, baina Lamprek ez zien aurrerik eman.

Gaur jokatu da Midi Libreko hirugarren etapa, 19 kilometroko erlojupekoa. Sailkapen nagusirako borrokan zeintzuk ariko diren zehaztuko du erlojupekoak. Team Coast taldeko Laurent Jalabert frantziarra da hautagai nagusietako bat. Sailkapen nagusian Igor Flores da aurreneko euskalduna, seigarren postuan, Svoradaren denbora berean.

SAILKAPENAK

2. ETAPA

1. Jan Svorada (Lam)	4:43.43
2. Nicola Loda (Fas)	d.b.
3. A. Vinokourov (Tel)	d.b.
4. Igor Flores (Eus)	d.b.
5. Fabrizio Guidi (Mer)	d.b.

NAGUSIA

1. Jan Svorada (Lam)	9:13.42
2. Jerone Bernard (Jea)	d.b.
3. Nicola Loda (Fas)	d.b.
4. A. Vinokourov (Tel)	d.b.
5. Fabrizio Guidi (Mer)	d.b.